



A.E.K. FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK. -----

I.- XEDAPEN OROKORRAK. -----

1. artikulua.- Fundazio kultural Pribatua eratzen da
A.E.K. FUNDAZIOA izenarekin. -----

2. artikulua.- Fundazioa, kasu guztietan, bere funda-
tzailea den "ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZE KOORDINA--

KUNDEA" A.E.K.ren borondateak arteztuko du, era zu--

zen nahiz ez zuzenean, honako Estatutu hauetan, Fun-

dazio eskrituran eta, borondate haren interpretazio--

eta garapenerako, ondarea libreki ezartzen duten xe-

dapenetan adierazitakoak alegia. -----

3. artikulua.- Fundazioak berezko izaera juridikoa -

dauka, berezko ondarez, eta beraz gaitasun osoa (iza

era adierazgarri eta ez adierazgarri eta ez mugaga--

rriz) edozein motatako ondasun higigarri eta higie--

zin administratu, eduki, eskuratu, erabaki, beteren-

ganatu, trukatu, kargatu eta hipotekatzeko; bere bu-



rua obligatu eta mota guztietako egintza eta kontra-
tuak burutzeko, kreditu eragiketak kontzertatzeko, -
ondasun eta eskubideei uko egin edo amore eman, bai-
halaber, egoki liratekeen prozedura guztiak sustatze-
ko, ukatu, segitu eta etsi eta Justizia Auzitegien -
eta Epaitegien aurrean, bai eta Estatua, Elkartea Au-
tonomoak, Herrialde, Udaleri eta gainontzeko Korpora-
zio, Entitate eta partikularren menpeko Administra-
zio Publikoko Erakunde eta Dependentzien aurrean, e-
dozein motako eskubide, ekintza eta salbuespenak li-
breki erabiltzeko, guztia indarreango ordenamendu ju-
ridikoari estuki atxekirik. -----

4. artikulua. - Fundazioaren helbidea (Gipuzkoa) Do-
nostian kokatuko da, Jose Maria Salaberria 31, 2 D.-

Patronatuak aipatu helbidea Euskadiko Elkartea Auto-
nomoko beste edozein lekutara alda dezake. -----

5. artikulua. - Fundazioaren iraupena mugarik gabekoa
da. -----

Hala ere, Patronatuak hura iraingitizat eman dezake
bere partaideen gehiengo kualifikatu baten iritziz, -
helburu horretaz deituriko aparteko bileran, susta-



tua izan zeneko helburuak lortzeko ihardunean segitze
ko ezintasuna nabarmena denean. -----

II.- FUNDAZIOAREN HELBURUAK. -----

6. artikulua.- A.E.K. FUNDAZIOAREN xedea honako hau-
da: -----

a) Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea A.-

E.K.n integratuta egonik, euren funtzioak betetzeko-
behar duten azpiegituraz zuzkitzea helduren Euskal-
duntze eta Alfabetatzea bultzatzen duten taldeak. --

b) Aipatu euskalduntza eta alfabetatzerako metodo-
pedagogiko eta didaktiko aurreratuak sustatzea. ----

d) Euskara eta Euskal Kulturaren sustaketaren hel-
buru orokorrei loturik dauden mota guztietako argita-
rapenak editatu, argitaratu eta zabaltzea, pedagogia
zein kultura arloan. -----

e) Euskara eta Euskal Kultura indartzen duten ekin-
tzak antolatu eta laguntzea. -----



f) Euskara eta Euskal Kultura arloan ikerketarako-
beharrezko edo egoki diren ikastaro, mintegi, hitzal
di, batzar, e.a. antolatzea. Era berean, helduen al-
fabetatze eta euskalduntze lanetan diharduen irakas-
legoa gaitzeko antzeko ekintzen antolaketa. -----

g) Instituzioen aurrean Fundazioaren ekintzen fi-
nantziaketara bideraturik egoki diren dirulaguntza,--
laguntza e.a.en eskaerak izapidetzea. -----

h) Aurrekoekin eta zuzen edo ez-zuzenean erlazion
turiko edo haietara zuzenduriko beste edozein ihardu
era. -----


7. artikulua..- Bere Patronatuaren potestate esklusi
boan Fundaziotik ondorioztatzen diren etekinen eslei
pena. -----

Bakarka zein taldeka, inork ez dezake azaldu haren
aurrean haiek gozatzeko eskubiderik. -----

Fundazioak bere iharduera aipaturiko edozein helbu
rutara zuzen dezake, guztiei kasu egin behar izan ga
be. -----

III. FUNDAZIOAREN GOBERNUAZ. -----


8. artikulua..- Fundazioaren gobernua, administrazioa





eta ordezkaritza fundatzaileek Fundazioaren Patronatuari iratxeki diote, Estatutu hauen eta Fundazio eskrituraren edukinaren arabera. -----

9. artikulua.-- Patronatuaren kargu guztiak konfidentzazkoak dira eta guztiz dohakoak. Hala ere beraren partaideek gomendatzen zaizkien lanak betetzean sortzen zaizkien gastuen ordaina jasotzeko eskubidea edukiko dute. -----



10. artikulua.-- Elkargo Fundatzaileak, ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA A.E.K.K, Estatutu hauetan eta Fundazio eskrituran azaltzen diren xedapenen betetze zintzoa gomendatzen dio Fundazioaren Patronatuari. Patronatuak eskudantza hau nagusitasun eta independentziaz edukiko du, inolako pertsona, entitate edo autoritateren interbentzio, ezagutza, baita men, fiskalizazio edo onarpenik gabe, beti ere, lege indarrean dauden xedapenak errespetatuz. -----

11. artikulua.- Fundazioaren Patronatua, Fundazio es-
krituraren bigarren klausulan izendatzen diren per-
tsonek osatuko dute, hauek elkarrekin beteko dutela-
rik. -----

Patronatu gutxienez bost eta gehienez bederatzi la-
gunek osatuko dute. -----

Patronatuaren bilerak baliozkoak izanen dira gutxi-
enez haren partaideen erdia gehi bat agertzen direne-
an. Hauek ezin izanen dira bozketetan abstenitu edo-
ta botu zuria eman. Erabakiak botuen gehiengoz hartu-
ko dira. -----

Hala ere Fundazioaren ondare higiezinaren besteren-
ganaketa eta ondare higiezin berriaren eskuraketa -
konpartitzen duten erabakiek, gutxienez, Patronatua-
ren partaideen bi herenen aldeko botua eduki behar -
izanen dute. -----




12. artikulua.- Patronatuak bere partaideen artetik-
lehendakari bat hautatuko du, berau, kideen botuen -
gehiengo osoz izendatuko delarik. -----

Karguaren iraupena hiru urtekoa izanen da, denbora
epe berberaz berriztatu ahal daitekelarik. -----



Era berean izendatuko da Patronatuaren Idazkaria--
zeinek, gomendatzen zaizkion beste zereginenez gain, e
giten diren bileren aktak jasoko dituen. -----

13. artikulua..- Fundazioaren Patronatuaren Lehendakariari dagokio gobernu organo honen bileretarako deialdia egitea, bere kabuz edota aipatu Patronatuaren kideen heren batek gutxienez hala eskaturik. -----



14. artikulua..- Patronatuko kideen artean gertatzen diren hutsak, Elkargo Fundatzailearen izendapenez beteko dira, honek erabakia bere arau eta iharduerari jarriki hartuko duelarik. -----

Patronatuak berak ere Elkargo Fundatzaileari berekopurua emendatuko dion kide berrien izendapena proposa dezake. Izendapen hau Elkargoaren organo artezkariek onartu behar izanen dute derrigorrez. -----

15. artikulua..- Patronatua, Fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren botere eta ahal guztien

tituloduna da. -----

Izaera adierazkor eta ez mugakorrez Patronatuaren-
esleipen eta ahalak honako hauek izanen dira: -----

a) Fundazioaren ordezkaritza edukitzea edozein mo-
tako erlazio, egintza eta kontratuetan, Estatua, He-
rrialdea, Udalerria, Agintariak, Estatuko Administra-
zio zein Elkarte Autonomoetako Administrazioetako --
zentru zein Dependentziak, Auzitegiak, Epaitegiak, -
Korporazioak, Erakundeak, Elkargoak, pertsona juridi-
ko edo mota guztietako partikularren aurrean, bere -
eskubide, ekintza eta salbuespen guztiak beteaz eta-
Fundazioari joan edo interesatzen zaizkion prozedura,
espediente, galdapen eta auzi guztiek bere biderapen,
instantzia, gorabehera, eta errekurtsio guztiei segi-
tuz, ondorio horretarako beharrezkotzat jotzen dituen
ahalak, bidezko ikusten duen pertsona edo pertsonei-
emanez. -----

b) Fundazioarentzako ondasun edo eskubideen eskura-
ketak onartu eta ondasun higigarri eta higiezinaren es-
kuraketa, edukitzea, administrazio, besterenganaketa-
eta kargaketa egintza eta kontratuak egitea, bai eta





hipoteken eraketa, eraldaketa eta ezeztapen oso edo-
partziala, ondasun eskubideen berrerospen eta askape-
na eta jabari estuko gainontzeko egintzak ere. -----

d) Fundazioaren patronatua osatzen duten ondasunen
errentak, fruituak, zatigaiak, interesak, balioak e-
ta beste edozeintsu aterakin eta etekinak jaso eta -
hartu. -----



e) Fundazioaren barne eta kanpo iharduera antolatu
eta zuzentzea; egoki ikusten dituen Arautegiak ezar-
tzea, pertsonal artezkaria, fakultatiboa, tekniko, -
administraria, urgazlea eta beste edozein izaerakoa -
libreki izendatu eta banandu eta euren soldata, ogi-
bide sariak eta haborokinak ezartzea kasu bakoitzera
ko diskrezionaluki aipatzen dituen formaltasunekin e-
ta ez besterik. -----

f) Beharrezko diren ordainketa guztiak egitea, bai
eta zatigai pasiboenak ere, Fundazioak une oro dau--

kan ondarea administratu, jestionatu eta babesteko -
behar diren gastuak, kontuak likidatu, zabaldu eta -
kitatzea, gordagailu eratu eta erretiratzea, kontu -
korronteak eta kredituzkoak irekitzea, zenbatekoak -
sartu eta ateratzea, partaidetzazko kontuak eta bes-
te edozein. -----

g) Bere ahal guztiak edo batzu pertsona bat edo --
gehiagorengan ordea uztea, hauek Patronatuaren kide-
izan zein ez izan eta beraie, egoki ikusten dituen -
ahalak esleitzea. -----


h) Eraikinen eraiketa egin eta kontratatzea, bai e
ta Fundazioaren helburuak betetzeko egoki ikusten di
tuen beste edozein obra ere, modurik egokiena eta e
ra guztietako zuzkidurak bere kabuz erabakiz, askata
sun osoz, horretarako edozein prozedura erabil deza-
keelarik, bai eskuraketa zuzena zein enkante edo le-
hiaketarena, inolako baimenik behar izan gabe. -----

i) Zuzenki edo berak izendaturiko ordezkari bat e-
do gehiengoren bidez, Fundazioari dagozkion izaera -
politiko eta ekonomikodun eskubideak erabiltzea, ak-
zioen eta bereak diren gainontzeko balio higigarrien





tituloduna den aldetik eta, ildo horretatik, Batzorde Nagusietan, Asanbladetan, Sindikatuetan, Elkargoetan edo Konpainia edo Entitate igorleen gainontzeko erakundeetan, etorri, eztabaidatu eta, egoki deritzon moduan, botua ematea, aipatutitulodunari iratxekita-ko ahal juridiko guztiak erabiliz, egokitzeak dituen egintzak, kontratuak, hitzarmenak, proposamenak eta agiriak itundu, eman eta izenpetuz. -----



j) Fundazioaren kapitalaren edo berau ordezkatu -- duena edo helburu horretaz kasu bakoitzean abagadune ekonomikoari egokitzeak Fundazioari eman zaionaren inbertsioak eraldatzea, Estatutu hauek eta Fundazioeskriturari atxekirik. -----

k) Estatutu hauen 6. artikuluan esaten diren helburuen etekinen eraketa, emanketa eta banaketari buruz erabakitzea, askatasun osoz, kasu bakoitzean zuzkidurak adieraziz, bai halaber, euren eraldaketa edo in-

dargabeketa. -----

l) Zuzenki edo ordea utzi dion pertsona edo pertso-
nen bitartez erabaki dituen inbertsioen aplikazio e-
gokia gainikustea eta, helburu fundazionalekin bat -
sortzen diren zerbitzu guztiak arteztu, arautu eta -
ikuskatzea, bai eta euren fundazionamendu eta admi-
nistrazioa ere. -----

m) Fundazioaren aurrekontua, balantzea, emaitzaren
kontua eta urteko oroitidazkia onartzea. -----

n) Estatutu hauen eta Fundazio eskrituraren artiku-
laketa Elkargo Fundatzailearen borondateari espreski
loturik interpretatzea. -----

o) Fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkari-
ritza organu gorenari dagozkion ahal eta betekizun -
guztiak. -----

IV. FUNDAZIOAREN ZERBITZURA DAGOEN PERTSONALAZ. ----

16. artikulua..- Fundazioaren zerbitzuak modu egokiz-
gestionatzeko, Patronatuak egoki ikusten duen pertso-
nala kontrata dezake. -----

Edozein kasutan, Fundazioaren ohizko jestiogintzan
erantzunkizun gorena, pertsona bati gomendatuko zaio,



honek Fundazioaren Zuzendari Eraentzaile ihardungo -
duelarik. -----

17. artikulua.- Zuzendari Eraentzailearen izendapena
Patronatuaren ahal ukaezina da. -----

Baliogarri izan dadin osatzen duten guztien gehien
gozosa eskatuko da. -----

Zuzendari Eraentzailea izendatzen den egintza bere
an Patronatuak komenigarri ikusten dituen ahal ordez
katuak emanen dizkie hauei eta dagokien Erroldan ins
kribatuko dira. -----

V. ONDAREA ETA ERAENTZA EKONOMIKOA. -----

19. artikulua.- Fundazioaren ondarea, edozein leku-
tan kokaturik dauden mota guztiko ondasunez osatua -
egon daiteke. -----

A.E.K. FUNDAZIOAREN Fundazio-Ondarea, oso-osorik -

ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA A.E.K. -

Elkargoak emana, Fundazio eskrituran jasota dago. --

19. artikulua.— Fundazioak hoberendu, zabaldu eta --
helburuak betetzeko, bai Entitate Publiko zein Priba-
tuetatik, edo beste edozein pertsonarengandik dato--
zen dirulaguntzak, harpidetzak, kuotak edo uzkontze-
tarik beste ondasunak jaso ahal izanen ditu, oso-o-
sorik Fundazioaren helburuetara zuzendu behar izanen
dituelarik. Fundazioaren beste edozein ihardueraren-
emaitzak ere oso-osorik haren helburuei loturik egon
go dira. -----

20. artikulua.— Fundazioaren ondasun, fruitu eta e--
rrentak, berehala eta iraunkorki, Fundazioaren helbu-
ruei atxeki eta loturik ulertuko dira, helburu bako-
tzari, kapital eta Fundazio errenten kuota edo zati,
berdin edo desberdinek asimilatu gabe. -----

21. artikulua.— Patronatuak, une oro eta behar adina
aldiz, fundazio kapitalean beharrezko edo komeniga--
rri ikusten dituen aldaketak ahal izanen ditu haren-
benetazko balio edo eskuratzeko ahala murriz dadin e-
kiditeko, kasu guztietan Fundazio eskrituran dauden-
preskripzioak errespetatuz. -----

22. artikulua.— Fundazioaren ondarearen eratze onda-



sunen jagotza ziurtatzeko honako arau hauek beteko -
dira: -----

a) Ondasun higiezin eta ondasun eskubideak Jabetza
Erroldan artiztuko dira Fundazioaren izenean. -----

b) Balioak, Fundazioaren izenean, Patronatuak izen
daturiko banketxean gordeko dira. -----

d) Gainontzeko ondasun higigarriak, jabetza titulu
ak, gordagi-gordekinak eta jabetza, edukitza, erabi-
lera, gozamina edo Fundazio tituludun den beste edo-
zein eskubide kreditatzen duen beste edozein agiri,-
Patronatuak edo beronek ordea eman dien pertsonak --
zainduko dituzte. -----

e) Fundazioaren ondasun guztiak Ondare Erroldako -
liburu batean lerroztatuko dira, hau Patronatuaren -
kargu egonen da eta bertan, haiek izendu eta zehazta-
tzeko, ingurunabar zehatzak jarriko dira. -----

23. artikulua. - Kontabilitate, liburu, aurrekontu, -

likidazio edo balantzeei dagokien guztien, indarrean
go legeak beteko dira. -----

VI. BALANTZEA, KONTUAK ETA OROITIDAZKIA. _____

24. artikulua.-- Urtea amaitzean, Fundazioaren Patro-
natuak ordea utzi dion pertsonak, dagokion balantzea
eginen du, Fundazioaren iharduera guzti-guztiak hau-
egonen direlarik eta egindako iharduerak azaltzen di-
tuen urteko oroitidazkiarekin batera, onespena jaso-
behar izanen du. -----

VII. IRAUNGIPEN ETA DESEGINTZA. -----


25. artikulua.- Fundazioaren Patronatuak, Estatutu-
hauen 5. artikuluan ikusten den balizko kasuan eta
indarreango legedian ikusten direnetan, iraungipena-
proposa dezake. -----

26. artikulua. - A.E.K. FUNDAZIO entitate fundatzaileraren nahi inperatiboz iraungitzen bada, Fundazioaren ondare osoaren banaketa, une horretan eta inolako i-

rabaziasmorik gabe helduen Alfabetatze eta Euskaldun.

tzean eta euskara eta euskal Kultura bultzatzen di--

harduten entitateen artean eginen da. ^{Arreka por Ordena}



atze eta Euskaldun

da. Recibida por Orden de: 22 IX -1993
V de
con el n.º 375 de 10/5/93
El Encargado del Registro
3